

Euskal erbesteratzea, generoa eta hezkuntza: Euzkadi-Venezuela ikastola

(Basque exile, gender and education:
Euzkadi-Venezuela ikastola)

Fernández, Idoia; Uribe-Etxebarria, Arantza;
Zabaleta, Iñaki; Dávila, Paulí; Larrazabal, Lutxi
UPV/EHU. Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fak.
Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila. Tolosa Hiribidea, 70
20018 Donostia

BIBLID [1137-4446 (2008), 16; 369-392]

Jaso: 07.05.24
Onartu: 07.12.03

Emakume Abertzale Batzak, eta oro har, emakume abertzaleek, gerraurrean garatu zituzten diskurtsoek eta praktikek gerra ostean nolako jarraipena izan zuten galdetu genion buruari ikerlerro horren abiapuntuan. Lan honetan, emakume horiek haurren heziketan eta zehazkiago hizkuntza eta kulturaren igorketan nolako lana garatuko zuten azalduko dugu, batikbat esilioko kasuan eta esperientzia jakin bati helduz: Caracaseko Euzkadi-Venezuela ikastola.

Giltza-Hitzak: Euskal erbesteratzea. Generoa. Heziketa. Euskal eskolak.

Para esta investigación, nos preguntamos qué pasó después de la guerra con los discursos y prácticas desarrollados antes de la guerra por la asociación Emakume Abertzale Batza y, en general, por las mujeres nacionalistas. En esta obra explicaremos el trabajo realizado por estas mujeres en el ámbito de la educación de los niños y, más concretamente, en el de la transmisión de la lengua y la cultura, especialmente en el exilio y basándonos en una experiencia concreta: la ikastola Euzkadi-Venezuela de Caracas.

Palabras Clave: Exilio vasco. Género. Educación. Colegios vascos.

Pour ce travail de recherche, nous nous sommes demandés ce que sont devenus, après la guerre, les discours et pratiques développés avant la guerre par l'Association Emakume Abertzale Batza et, en général, par les femmes nationalistes. Nous abordons, dans cet ouvrage, le travail réalisé par ces femmes dans le domaine de l'éducation des enfants et tout spécialement en matière de transmission de la langue et de la culture, en particulier dans l'exil et sur la base d'une expérience concrète : l'ikastola Euzkadi-Venezuela de Caracas.

Mots Clé : Exil basque. Genre. Éducation. Établissements scolaires basques.

Erbestearen esperientzia mingarriak beti ekarri ohi du berarekin nolabaiteko urradura, esperientzi pertsonal eta politikoezko etena. Era berean nahitaezko deslotura dakar sorlekutik zeina barnean soilik bizi daiteken zerbaiten presentzia bilakatuko baita. Gerratea galdu izanaren sentsazioa eta herrira itzultzeko itxaropena izango dira erbesteratuek bizi izaten ikasi beharko dituzten sentimendu biak. Denboraren joanak sentimendu bi hauek zehaztera eramango ditu eta baita euren bizimoduak berregitera, komunitate batek iraun dezakeen identitate ezaugarri batzuek atxikitzen ahaleginduz.

Venezuelar erbesteratzeak eta euskaldun askorentzat ondorengo migrazioak komunitate bat berreraikitzeke ahalmenak jokoan jartzea ahalbideratuko du. Zentzu honetan gerra zibilaren ondoren ematen den erbesteratzearen ondorioz euskaldunek Venezuelaren garatzen duten ataletako bat agertu nahi dugu, hezkuntza praktika ezberdinen garapena azpimarratuaz. Gure lana oinarritzen den zutabeetako bat emakumeak dira eta euren zeregina hezkuntza sozializazioan, hala nola Caracas-eko Euzkadi-Venezuela ikastolaren eraikuntzan, ezaugarri hauetako esperientzi bakarra Euskal Herritik kanpo¹. Idatziriko material dokumentalaren eskasia eta hezkuntza prozesu hauen protagonisten bizipenak biltzeko jakin-minak behartu gaitu gure ikerketa bai Euskal Herrian eta baita Venezuelen ahozko testigantzen bidez aurrera eramatera.

EMAKUMEAK HEZITZAILE ZEREGINEAN: HASIERAKO HURBILKETA

Azken urteotan gure lana bideratu duen ildoetako bat euskal hezkuntzaren berreskuratzea izan da, berau intentsitate eta zehaztapen ezberdinen praktika gisa ulertua eta euskara bere kultur transmisio hizkuntzat hartuta. Zentzu honetan Euskal Herriaren kasuan mende honetan abian jarri diren proiektu guztiak nazionalismoari lotuak egon dira edota ideologia zabal gisa nortasun ezberdinduaren gertakariari lotua edota eraikuntza nazionalaren eremu politikoan.

Mendearen lehenengo laurdenean garatu ziren ezaugarri hauetako hezkuntza esperientziak (auzo eskolak, nekazal eskolatxuak, Euzko Ikastola Batza) prozesu baten gailurtzat har daiteke, zeinak errepublikar garaian emakume nazionalista mugimendu garrantzitsu batekin bat (Emakume Abertzale Batza)² bere jomuga izan zuen. Ia esan genezake euskaraz hezkuntza praktikaren bat zegoen tokian euskal nazionalismoari loturiko emakumeren bat ere bazegoela.

1. Frankismoaren hasierako hamarkadetan hain ohikoa izan zen esparru familiarretan kokaturiko hezkuntza praktiken azterketa Euskal Herriko Unibertsitateak 1994an diruz lagunduriko "Emakumea, hezkuntza eta euskal nazionalismoa" izeneko ikerketan izan dira aztertuak. Oraingo lan hau aurrekoari estuki lotua badago ere beste ikerketa lan baten barruan dago, 1996an EHUK "Emakumea, hezkuntza eta euskal erbestea (1939-1975)" izenburupean diruz hornitua baita ere.

2. Emakume Abertzale Batza 1922an sortu zen, Cumann na nBan irlandar emakume erakundearen eredutzat harturik, zeina Sinn Fein-eko kide zen. Bere sorrera independentziaren aldeko euskal nazionalismoari lotua egon zen eta hasiera arin baten ostean -Primo de Rivera diktadurapean legez kanpo jarriak izan baitzen- errepublikar garaian izugarriko garrantzia lortu zuen.

Izan ere, Sabino Aranak bultzaturiko nazionalismo tradizionalaren ikuspegi ideologikotik emakumea ama zereginen lerraturik agertzen zaigu, endaren mantentzaile biologikoa, kultura eta hizkuntzaren igorle, belaunaldi berrien sozializazioaren erantzule eta, ondorioz, bere hezkuntzarena ere. Zeregin biologikoa beraz kulturala bilakatzen da eta etxe barruko esparruan ezezik esparru komunitario eta publikoetan ere hedatuz doa³. Errepublikaldia, adierazpen askatasun handiagoko sasoi izanik, emakume hauek euren zeregina aurrera eramateko erabilitako bide ezberdinen benetako erakusleho da, hezkuntza formalak (euskal eskolak), hezkuntza ez-formalak (antzerkia, dantza taldeak, abesbatzak, dotrina...) eta hezkuntza informalak osatzen duten abaniko zabal horretan.

Gerrate zibilak eta agente militar frankistaren ezartzeak, zein lege aldetik zein ideologia aldetik bere errepresio aparatuen bidez euskal nazioa ukatuz, euskal hezkuntzaren zereginaren berregokitzapena eragin zuen, testuinguru jakinen arabera era ezberdinak izanik. Jarraipena izango da ekinbide guztia bideratuko duen ideia, beti ere genero harremanen egitura jakinaren arabera hartuaz, baina jarraipen hori une eta testuinguru bakoitzean berregokitua izango da. Beraz, bereiztu behar dugu lehenengo aldia non hezkuntza zereginaren berregokitzapena udalekuen bidez ematen baita eta bigarren aldia, bigarren mundu gerratea dela eta, non apurka apurka ezarritako frankismoaren eraginak jarriko baititu behin betiko euskal hezkuntzaren ekinbideen mugak.

la esan genezake euskal hezkuntzaren eremua bitan banatzen dela eta bieta-ko bakoitzak berezko joera agertzen duela. Bata Euskal Herrian gauzatzen dena, eta, bestea, hortik harat sortzen dena. Erbestearnak –egia esan erbesteak dira– ezaugarri komunak agertzen ditu erbesteratuak une fisiko jakin bateratsuan lekututako talde gisa aritzen diren testuinguruetan. Dena dela, Caracas-eko esperientziak osagai berezia gaineratzen dio aurrekoari eta horregatik *ad hoc* azterketa eskatu du, zeren testuinguru horretan, eta ez beste inon, eskola proiektu sendoa sortzeko gaitasuna izan eta hogeitau urte luzez iraun baitzuen: Euzkadi-Venezuela ikastola.

EMAKUMEAK ETA EUSKAL HEZKUNTZA ERBESTEAN: JARRAIPENAREN IDEA

Ezin dugu euskal erbestea eta beronen hezkuntza adierazpenez barbarik egin, izateko arrazoia eta zentzuna ematen dioten testuinguru politiko eta ideologikoari erreparatu barik. Inorentzat ez da ezezaguna ez dagoela erbesteratzerik alde zurretiko zer edo zer gabe, ez dago desterrurik alde zurretiko errotzerik gabe. Mendearen lehen herena mugimendu nazionalistaren sustapena da Euskal Herriarentzat, nazioaren ideia hedatu eta herriaren atal garrantzitsuenekin bat egiten duen garaia, literatura, arte edota hezkuntzaren eremuetan sormen eta kultur berpizkunde garaia ematen delarik. Eusko Ikaskuntza edo Euskaltzaindiaren sorrerak 1918an, gaur egun ezagutzen ditugun erakunde diren

3. Esparru komunitarioez ari garenean emakume hauek etxetik kanpo euren zeregin edo funtzio soziala betetzeko erabiliiko espazioez dihardugu. Oraingo honetan esparru komunitario hauek eguneroko topalekuak dira: batzokia, EABko egoitza eta abar.

aldetik, garai hartako bizitasuna eta dinamismoaren erakusgarri dira (ESTORNES, I: 1983).

Gertakari honen atzean, jakina, jende ugari zegoen, zehatzago esanda gizon eta emakume ugari. Euskal prozesu nazionallean euren zeregina zalantzan jartzen duten emakumeak eta apurka apurka eredu roussoniarraren emakume/ama/emazte irudia deseginez eta gero eta publikoagoak eta politizatuagoak diren eremuetan sartu-irtenak eginez erantzun ezberdinak aurkituko dituzte. Hala eta guztiz ere oraingo honetan ez ditugu kontutan hartuko emakume eredu apurtzaileen ekintzak baizik eta, euren sexuari ezarritako zeregina betez, euren sasoiara ezezik gaur egunera arte ere iristen diren kodigo ideologikoetan sozializazio ikaragarri zabala aurrera eramane zutenena.

Euskaldunok sendi handi bakar gisa– sendi nazionalista handia– josten zuen diskurtsoaz baliatuz emakume hauek, irudiaren iragazkortasunari esker hain zuzen ere, bai etxe barruan eta baita eremu komunitarioetan naturaltasunez eta solturaz jokatzeko duten hezkuntza eragile bilakatuko dira. Euskara eskolak, dotrina, hirira neskame lanetara doazen neskatxen oinarrizko hezkuntza, antzerkia, kantu eta dantza taldeak, euskal eskolak, desfileak, jaiak, euskaraz idatzitako prentsa, literatur lehiaketak edota, hezkuntza arlokoak izan ez arren, onegintzari (jaioberrientzako otartxoak, jantokiak...) edota lan politiko eta proselitistari (mitinak, manifestazioak, agitazioa...) lotuak. Ekinbide sakona hego Euskal Herriko 550 herrietatik 205ean burutzen zelarik eta 25.000 afiliatu zituen, euretariko 500 inguru irakasle zirelarik⁴.

Inorentzat ez da hutsala mobilizazio honen eragina eta ia bat batean sortzen zaigun galdera da zertan geratu zen hezkuntza egitura guzti hori? Zer gertatu zen beronekin gerrate zibilean eta sasoi frankistan? Galdera hau erantzuteko, ikertutako garai honetako emakume nazionalistek emandako erantzun ezberdinen atzean jarraipenaren ideia zetzala esan genezake. Jarraipen honen zantzoak prentsa idatzian eginiko deiren batean edo bestean antzeman daiteke baina gehienetan ez du jatorri jakin eta datatua; emakume belaunaldi honetarako ordura artekoa egiten jarraitzea bat-bateko erreakzioa da, euren bizitzan historietan lorratz sakona utzi duen proiektu politikoko partaide sentiarazi dien biltzeko ohitura hori.

Garrantzizkoa da ezagutzea gerrateak duen esanahia EABko emakume hauek. Gerrateak aurreko egoera jakin baten haustura badakar ere ezin dugu ahaztu gertakari politikoa dela eta, emakumeok sozializatuta zeuden genero harremanen arabera, honek nagusiki gizonetzkoen zegoen zereginen

4. 205 udalerrri hauek gain EAB beste 113tan sortzeaz zegoen eta hau nolabaiteko ekintza motaren bat adierazgarri da. Bizkaia eta Gipuzkoako lurraldeetan honen zabalkundea ia erabatekoa zen eta Araba eta Nafarroan hainbat apalagoa, hauek udalerrri kopurua gainera askoz handiagoa izanik. LARRAÑAGA, P. (1978): *Emakume Abertzale Batza. I*. Auñamendi Donostia. 58 or. Mercedes Ugaldek Larrañagak emandako datuak baieztatzen ditu baina azken kopururik eman barik. Gure aburuz zenbaki hauek gutxi gora beherakotzat hartu behar dira gertakariaren zabalkundea lorrindu gabe. Kontutan hartu behar da une hartan hego Euskal Herriko populakuntza, Larrañagaren arabera, 1.280.493 biztanlekoa zela zeinetatik 28.500 gutxi gora behera EABko kide ziren.

eragiten ziela. Gizonezkoak “ordenutik” jaurtikiak dira, instituzioetan zuten eragina desegiten zaie, armekin borrokatzen dira, persekuzioa jasango dute eta heriotzaren arriskua dute edo erahilak dira... J. Zulaika antropologoak egoera zehatz mehatz adierazten zuen esamoldea bildu zuen “aitak gerratea galdu zuen”. Emakumeekin, ostera, zer gertatu zen? Noski gerratearen ondorioak euren bizitzetan bizirik egongo direla, bestelakorik esatea iruzurra litzateke, baina euren sexuaren egitekoaren baldintzek iraun egingo dute. Eurak errepresio berezia, ezberdindua jasango dute: ile mozketak, jendaurreko umilazioa, erbesteratzea, espetxea baina bizitza beraren galtze arriskua ezabatuagoa dago⁵ eta honek ahalbideratzen die gizonezkoen multzoaren aldean egoerei era ezberdinez aurre egitea. Ez daukagu nahiko daturik frankisten portaera errepresibo ezberdindu honen arrazoiak neurtzeko baina susmoa dugu euskal nazionalismoaren izaera katolikoak eragina izan zuela eta baita gizartearen banaketa sexualari buruz zituzten hautemateak.

Kontua da EABko emakume asko eta euskarazko hezkuntza esperientzia ezberdinetan zebiltzan irakasleak, hasiera batean Eusko Jaurilaritzak antolatutako udalekuetan kokatu zirela, hain zuzen ere erbesteko euskal hezkuntzaren lehengo agerpentzat jo dezakegun honexetan. Bigarren gerrate mundialaren hasierak beronen desagertzea ekartzeaz gain, euskal errefuxiatuei beste eszenatoki berria dakarkie, batzuk hego Euskal Herrira itzuli zirelarik edota Ameriketara zuzentzen den exodo handi baten partaide bilakaturik. Elkarrizketa batean jaso genuen esaera hura “itsasora begira dagoena traidore” berraztertua dela ematen du eta baita Jose Antonio Agirre, Euskal Gobernuaren burua erbestean, beraren jokamoldea ere, zeina ez baitzen Ameriketara emigrazio handien aldeko, aliatuen jokabidean oinarritutako arazoaren irtenbide berehalakoan pentsatuz (SAN SEBASTIAN, K: 1992, 42). Aurreikuspen hauek inoiz ez ziren eman eta amerikar lurretara jotzea milakada pertsonentzat aterabide bilakatu zen.

Gerrateak, hortara, Euskalerrriaren historia politiko eta sozialean eten bat ekarri bazuen ere, ez zuen horren pareko kualitatiborik izan ez genero harremantetan ezta hezkuntza praktiketan ere, ez behintzat hirurogeigarren hamarkadara arte. Emakume nazionalistak gerrateak iraun zuen bitartean beren egitekoarekin jarraitu zuten eta gerrosteko hurrengo bi hamarkadetara ere zabaldu zen, belau-naldi berriaren sozializatzaile izatearen egitekoa agortu zuten arte. Argibide gisa emakume baten hitzak dakartzagu, ipar Euskal Herrira 16 urterekin erbestera-zen den EABko emakume baten alabarenak. Beraren bizimoduaz honako hau diosku: “Bildu, hasi berriro, hasi berriro ez, jarraitu, jarraitu, berdin jarraitu”⁶. Bere kontakizunean zehar azaltzen dituen ekintza erreperorioak antzekotasun handia du gerrate aurrean EABk egiten zuenarekin eta erbestean taldea eratzea

5. Honen gainera A. Elorzak proposatzen duen hipotesia, emakume nazionalistak errepresio ezberdindua jasan zutela interesgarria da eta datu esanguratsua ematen digu emakume nazionalista bakarra izen zela eraila, Paula Mujika Arrasatekoa. Eta amaitzen du “*Cabe pensar que todo ello, si sirvió para acompañar la extinción legal del movimiento femenino abertzale, no tuvo la menor eficacia a la hora de borrar las convicciones ideológicas de las vencidas*” ELORZA, A. (1978). “La mujer en el nacionalismo vasco”. *Tiempo de Historia*/(38). 17 or.

6. T. Epalzari elkarrizketa.

lortu zuten beste emakumeek kontakizunen antzekoa⁷. EAB ezaugarritzen duten hasierako ekintzek euren jarraipena izango dute euskal nazionalismoak ezartzen zizkien portaera tradizionalan baino aldatuz joango dira erbestearen testuinguru berria ondorengo laukian ikus daitekeen moduan.

EAB	ERBESTEA: JARRAIPENA	
Hasierako ekintzak	Biziraupena	Birsorketa eta taldearen biziraupena
<ul style="list-style-type: none"> • Langile eta txiroentzako jantokiak • Haurrentzako otartxoak • Poxpolina eta dantzari taldeak • Euskara eskolak • Dotrina • Gaixoak ikustea • Propaganda, proselitismo politikoa 	<ul style="list-style-type: none"> • Etxe eta aterbe bilaketa • Neskame, puntu egitea, etxeko gelak alokatzea, "ESPABILATZEA" • Ameriketako dirua lortu • Erresistentzia lagundu • Espetxeratuak lagundu • Estraperloa • Elkartasuna eskatu eta erakarri 	<ul style="list-style-type: none"> • Gerratearen ondorioz banandutako sendiak elkartu • Urruti zeudenak hurbildu • Ikusi, gaixoak zaindu • Idatzi. Amerikarekin mozturiko harremana berreskuratu • Dotrina euskaraz • Umeen koloniak • Dantza taldeak • Iparraldeko jendea "mugarazi", ezagutzen ez zuten mundua ezagutzera eman

Gerratea bera gainditzen duten sektore hauek biziraupena dute oinarritzat; alde batetik norbanakoarena eta sendiarena zentzu zehatz batean (aterbea lortzea, janaria, lana, dirua, "espabilatu" elkarrizketan dioskutenez); eta bestalde zentzu zabalean euskal taldearena (elkarkomunikazioa berreskuratu, batzartzea, sozializatu, laguntza behar dutenak zaindu...). Hau da, biziraupen biologiko eta kulturalari zuzenduriko zeregin tradizionalak bai esparru publikoan nola komunitarioan. "Jarraipen" honek azken baten euskal ideologia nazionalaren birsorkuntza baino ez da eta gerrosteko praktika sozializatzaile eta hezkuntzazkoei dagokienean sendiek gerra ostean izandako lekutzeari dagokienean baino ez da ezberdintzen, beraz gutxienez berba egin beharko genuke bigarren gerrate mundialaren ondoren erbestean jarraitzen dituzten sendiez eta hego Euskal Herrira itzultzen diren sendiez.

Aztertu ahal izan dugun erbestearen zatiak denboran zehar alderantziz ematen diren bi hezkuntza joeraren hipotesia baieztatu digu. Alde batetik, euren sor-

7. Zehaztapen hau garrantzizkotzat jotzen dugu zeren erbesterratu guztiak ez baitute lortzen antzeko egoeretan dauden beste atzerritatuarekin bizitzea, arazoia ezberdineak direla medio.

lekuetara itzuli eta frankismoa barrutik bizi duten sendiengan eremu familiarra-
ren saturazio sozializatzailea bai bere alde ezformalean eta informalean, denbo-
raz eremu komunitario hezitzaileantzi abiatuko dena, nagusiki heziketa formalera
joko duena eta, azkenik, nagusituko dena hirurogeigarren hamarkadako birfor-
mulazio nazionalistan eta aldaketa sozio-ekonomikoen arragoan, ikastolen mug-
menduaren bidez (FERNANDEZ, I: 1994 eta 1995). Beste alde batetik, erbeste-
ko sendietan hezkuntza praktika ez formalak garatzeko nagusiki eremu
komunitarioen sorketa antzematen da eta kasuren batean, adibidez Caracasen,
baita formalak baina denboraz indar galduaz joango dira batez ere frankismoa
amaitzerakoan asko itzuli egingo direlako eta baita bertan geratzen direnak inte-
gratzen eta mestizaia kulturean abiatzen direlako.

ERBESTEKO LEHENENGO HEZKUNTZA AGERPENA: EUSKAL KOLONIAK

Gerratearen ondorioak gizarte osoan du eragina nahiz eta ez denengan era
berean. Zentzu honetan haurtzaroak zerikusia du nagusiek bizi duten eszenatoki
dramatikorekin, gizonek batez ere protagonismorik handiena daramatelarik.
Zehatzago esanda lerro hauen bidez borroka armatu baten tragediaren gordinta-
sunak erakusten digun aurpegiara azpimarratu nahi dugu: erbestea. Eta gehitzen
dugu, milakada haurren erbesteratzea. Gure kasuan euskal umeek ezagutu
zuten patuaz dihardugu eta beste batzuen artean eskola koloniak deiturikoetan
hartu zuten tratamenduaz. Hala bada, eta alde aurretiaz Gregorio Arrieni dago-
kion errekonozimendua aitortuz gai honi dagokionean lehen izan baitzen
(ARRIEN, G: 1984), erbesteaz dihardugunean eta euskal haurtzaroaz ari garelarik
erbesteratze bikoitzaren ideiaz hitz egin genezake hemen baita ere. Barne erbes-
tea, Euskal Gobernuaren iritziz (euskal lurraldean gerratea zuzendu zuen erakun-
de gisa erreparatzen diogu), euskal haur hauek hezkuntzari dagokionean ere
egokiro lagunduak izan daitezkeen gerrateak dakartzan arriskuez babestu nahi
dituelarik. Eusko Jaurlaritzak, bere agindupean dagoen lur eremuan hezkuntza
politika planteatzean, ezin ditu ahaztu indar frankistek beren menpean harturiko
lurraldeetatik etorritako haurrak ez eta eremu askeetan bizi direnak etsaiaren
erasoetatik babesa behar dutenak. Ikuspuntu honetatik eskolen sortzea, irakas-
leen izendatzea eta abarri buruzko guztiak esanahi berezia hartzen duela ulerga-
rria da. "Euzkadiko Eskolak"⁸ deiturikoen sorrera aztertzen dugunean antzematen
dugu ez soilik hezkuntza mailako ardura baizik eta babes eta aterpe gisa ezartzen
zaien zeregina. Arazo hauek gerrate sasoiaren erdi-udalekutat jo daitezkeen sorre-
ra bultzatuko dute. Antolaketa eredu honek erbestean eskola kolonien sorkuntza
ahalbideratuko du.

Izan ere zentzu honetan ahaleginak egin arren ia ezinezkoa izan zen gerrate-
aren gordintasunetik haurrak gordetzerik. Haurtzaroa nahitaezko biktima izango

8. Eusko Jaurlaritzak eraturiko eskola hauek bere muinean II. Errepublikan sorturiko Euskal
Eskolen ereduari jarraitzen diote eta ikuspegi ideologikotik orientabide konfesionala eta nazionalista
zutela gaineratu beharko genuke. Euskal eskola hauek izaera laikoa (eskola nazionalak, udal eta auzo
eskolak) eta konfesionala (ordenu erlijiosoetakoak) dutenekin batera osatzen dute orduko mapa
eskolarra.

da balek eta lehegailuek nagusi den errealtatean irlarik onartzen ez dutelarik: frentean senitartekoak, batzuetan hilak edo erailak, eskola eskasia edota eskola itxiak; irakasle eskasia; segurtasun eza, ihes doan populakuntzaren mugimendu handiak eta abar. Erbestean aterbea bilatzea ahalik eta haur gehienentzat Eusko Jaurlaritzarentzat egiteko nagusienetakoa izango da galtze eguna hurbiltzen delarik etengabe. Eztabaida ugari eman zen testuinguru batean eta propaganda faxistak mokadu goxoa aurkitu zuelarik– “gurutzada”ren partaide izan zen elizaren esku hartzearekin– fase ezberdinetan eta haurren ebakuazioan intentsitate ezberdinekin antolatu zen. Jomuga ipar Euskal Herria, Frantzia, Britainia Handia, Belgika, Sobiet Batasuna... izango dira. Gerrateko haurrak izango dira.

Haur kolonia hauek aterpe izateaz gain eskola eta heziketa mailako arreta eskaintzen diete. Gertakariaren kopurua kontutan harturik (ia 40.000 haur atereak gutxi gora behera) beharrezkoa izango da ez soilik Eusko Jaurlaritzaren esku hartzea baizik eta nazio arteko zenbait erakunde (gobernua eta elkartasun erakundeak)⁹ zein erakunde nazionalak, Emakume Abertzale Batzaren kasua esaterako, eginkizun honen alde gogor saiatzea bai antolaketa eta baita hezkuntza mailan, errepublikar saioan pilatutako esperentziaz baliatuz (UGALDE, M.: 1993). Lehenengo koloniaren esperentzia arrakastatsuak, Oleron-eko irlan kokatua eta “Etxe zorionsua” izenekoa, jarraipena izan zuen Ostende, Paris, Birmengham, Brampton, Southampton, Moscu, Brussela beste batzuen artean¹⁰. Guzti guztiek ez bazuten eskola kolonien izaera izan, bai jo daitezke aterpe tokia eskaintzeaz gain batez ere hezkuntza helburuak dituzten zentruetat. Badaude ere haurren leku aldatzearen beste era batzuek (familia erregimena, aterpeak, eta abar) herri bakoitzeko edo joandako herriaren hezkuntza sistemarekin bat hezkuntza planteamendua jarraituko dutenak (ARRIEN, G.: 1984).

Barnetegi gisa eratuak –mistoak kasu batzuetan, herri hartzaileetako hurrekin ikastetxeak partekatuz toki gutxi batzuetan– eta kudeaketa Eusko Jaurlaritzaren menpe zuzenean daudenengan zentratuak, eskola koloniek “Euzkadiko Eskolekin” jarraipen ildoan eraman nahi dute. Testu liburu eta eskola materialen ezaren arazoak edota klaseak mailakatu ezinak eta abar ez dute galaraziko nolabaiteko normaltasunez egiteko honi ekitea, haurrentzat zirkunstantzia ezohizkoez josirik bada ere. Zentzu honetan irakasleriaren sugar militanteak, batik batik lehendik irakasle zirenen artean aukeratuak, paper erabakigarria jokatuko du. Hezitzaile hauek, batik batik emakumeak, euren egiteko profesionala betetzeaz gain ama eta erizain gisa ere jokatu zuten, euren herria eta kultura kolonia horietara eramaten ahaleginduz, urrutitik etxerako hurbilpena. Ohizko gaiez aparte

9. Frantziako “Comisión de ayuda a España” edo London-eko “The National Joint Committee” batzuek aipatzeagatik. SEBASTIAN, L. (1989). “Las organizaciones y actividades de las mujeres nacionalistas vascas durante la guerra civil” In: *Las mujeres y la guerra civil española*. Madrid: Ministerio de Cultura. 80-87. orri.

10. Arrienen lanean beste batzuen artean Britainia Handian 60tik gorako kolonia edo onarpen herriak aipatzen dira, Frantzian 400dik gora, hamar inguru URSS-en eta Belgikan, beraien sostenguaz arduratzen ziren erakundeak anitzak eta era ezberdinetakoak zirelarik. Aipatu behar dira era berean Catalunyan eratu ziren kolonia ugariak -ehundik gora- zeinak beste batzuek, batez ere estatu Frantsesekoentzat, zubi egin baitzuten.

edota irakaskuntza programara gehitzen zitzaizkienez (hizkuntzen ikastea, tailer profesionalak...) bazeuden euskara, euskal kulturaren garapena eta jorratzea, euskal folklorea (musika eta dantzak), Euskal Herriari buruzko irakurketa eta kontaketak, edota euskaldun txikien irakaskuntza elebiduna. Kolonia batzuetan herriko ospakizun ohizkoak oinarrizko osagaia bilakatuko da— erlijiosoak ahaztu barik, nazionalistentzat hain esanguratsua euren izaeraren definizioan— eta berauen bidez Euskal Herriarekiko nolabaiteko lotura egitea bilatzen da. Azpimarratu beharra dago baita ere apaiz ugarik esku hartu zuela; jakina beste frentean euren kide profesionalen espiritu gurutzatuarekin bat ez zetozenak.

Azken baten eskola koloniak erbesteratzean lurralde nazionala izatea nahi zen, hiritar/haur euskaldunak euren talde identitatean berrindartuak euren etxeetara laster itzuli ahal izatearen esperoan. Baina itzulera hau, gerra bukatutakoan eratu zen arren, ez zen izan, noski, hastapenetan pentsatzen zen modukoa.

EUSKAL ERBESTEA VENEZUELAN

Gauza jakina da euskal diaspora Amerikan zabala dela eta kontinente hau goitik behera zeharkatzen duela iparretik hegora, baina venezuelar kasua berezia eta azpimarragarria dugu gure ikerketarako. Argentina, Kuba, Mexiko, Chile, Uruguay edo EEUU bezalako herrialdeetan ematen den euskal erbesteratu/migratzaileen pilaketa eta euren bilketa euskal etxeetan espainiar gerrate zibilaren aurrekoa da; jatorria bai ipar eta bai hego Euskal Herrian dute eta zein arrazoi politikoak zein ekonomikoak eragindakoak dira beste testuinguru sozio-historikoei loturik (txirotasuna, mertzenarioak, misio erlijiosoak, gerrate karlistak, nazionalismoaren pertsekuzioa...)¹¹. Alta euskaldunen iristea Venezuelara, nahiz eta Real Compañía Guipuzcoana de Caracas-en (1728) aurreikuspen historiko ezaguna duen, batez ere 1939tik ematen da eta venezuelar agintari eta Eusko Alderdi Jeltzalearen arteko negoziazioaren ondorioa da, bere kide diren erbesteratuak bidaliko dituelarik. Exodo jakin honen arrazoiak ulertzeko hirugarren hamarkadako azken urteotako testuinguru venezuelarrera hurbildu behar dugu. Diktadore batek, Juan Vicente Gómez, hogeita bost urtez gobernatu zuen lurralde honetan (1910-1935) eta bere heriotzaren ondoren zabaltze eta erreforma politiko sasoiak hasi zen, zeinak petrolioaren aberastasunaren kudeaketa berria ekarri baitzuen eta estatuari etekin garrantzitsuak eman baitzizkion. Ingeles eta amerikar enpresa handien eskuhartzeen urteen ostean lurraldea “nazionalizatze” egonezin soziala etorri zen. Lurralde honi aberastasun naturalak zekarkion garapen ekonomikoa, baina, galarazita zegoen bere demografia baxuagatik (3.700.000 biztanle 1940an) eta, beraz, Venezuela populatzeko egokia zen gizataldearen bilaketa garai hartako politikoen kezka nagusietakoa bilakatu zen.

11. Ikerketa oso bat euskaldunak Ameriketara eta honen esangura nortasun etniko komun sendoaren duen gizataldearen ikuspuntutik ikus: DOUGLASS, W.A.& BILBAO J. (1986). *Amerikanuak. Euskaldunak mundu berrian*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua. Gaur egun euskal kleroa duen pisu jakinaz ikus: ALVAREZ GILA, O. (1995): “Eliza, euskal abertzaletasuna eta Ameriketako erbesteratzea. Ikuspegi orokor bat (1898-1940)”. *Uztaro*, 13, 69-86 orri.

Euskaldunen ondorengoak ziren venezuelar zenbaitek eginiko kontaktu ezberdinak eta prentsa kanpaia bat izan ziren Simón Gonzalo Salas-ek buruturiko txostenaren aurrekariak, berau euskaldunen ondorengo eta 1939tik aurrera Inmigrazio eta Kolonizazioa Instituto Teknikoko zuzendariorde. “Inmigración vasca para Venezuela” izenburua zuen txosten honetan egilea emigrante multzoaren aukeraketaren alde agertzen da, honek nazio homogeen baten egituraketa ahalbideratuko duelako (“soilik osotua, edo behintzat neurri handi batean, jatorri aukeratuen elementu etnikoez”), askea, joera politiko orekatuetakoa (“gaur egun faxismo eta komunismo izenez ezagunak diren doktrina sozial negargarrietatik aldendua zeintzuk beren estremismoarekin mundua itotzen baitute”), nekazal girokoa eta osasuntsua (“horretarako nahita nahiezkoa da jendilajeen etorrera ekiditea: ahulak, zaharrak, herentzia edo kutsakor gaixotasunen eramaileak, desorekatuak, alferrak, lizunak, eta abar”).

Planteamendu hauek sorkari ideologikotzat Europan mendearen lehenengo herenean hain hedatutako higienismo arraziala (eugenesia) eta sozialaren diskurtsoak dituzte. Teoria higienikoetan euren asmoen erantzun egokia –“euskal herriaren ideologia osasuntsuan” diotenez– aurkitzen dute politika jendeztatzaileen arduradun hauek eta, arriskuak erakarri orde, euskal nazionalistak euren erlijio zuzentasuna eta politikoa ekarriko zizkioten hala nola lanerako gaitasun ugari, noblezia, leialtasuna, justiziaren sena eta abar nazionalizazio venezolarrari.

Mundu gerratearen hurbiltasunak erraztu egin zuen antolatutako emigrazio honen negoziaketa eta 1939ko ekainaren 24ean atera zen lehenengo multzoa. Honen ondotik –nahiz eta Atlantikoan zeuden urpekuntziek zaildu zeregin hau– berrogeita hamar hamarkadan zehar luzatuko ziren beste espedizioak etorriko ziren, azken hauek osagai ekonomiko eta politikoa bazuten ere. Koldo San Sebastián eta Peru Ajuriak ematen dizkiguten datuen arabera 1939an Venezuelan gutxi gora behera 300 euskaldun zegoen, 500 hurrengo urtean eta 1956an 8.000 eta 10.000 artean (SAN SEBASTIAN, 1992:80).

KOMUNITATE BATEN BERRERAKETA: CARAKASEKO EUSKAL ETXEA

Dagoeneko jarraipenaren ideiak erbesteko euskal emakumeen artean nola-ko garrantzia izan zuen azpimarratu dugu. Jarraipen hau familia guneen eremu murrizetan eta beronen albokideetan –hego Euskal Herrian geratu ziren familietan gertatu zen moduan–, burutu bazen ere, berebiziko garrantzia bereganatuko zuen gerrate aurreko “familia hedatu”-aren espazio komunitarioak berreraiki ziren testuinguruetan, hau da, gerraurreko antolamenduak “berregin” zitezkeen tokietan.

Erbesteko bizipen guztiak ez dira berdinak eta, beraz, praktika sozializatzaile eta hezitzaileen birsorkuntza aztertu beharko da erbesteak eragile sozial horientzat duen esanahitik abiatuta. Elkarrizketetan antzeman ditugu bai erbestea gaindiezinezko mozketak mingots gisa bizi dutenak eta bai kontraesanean bizi dutenena, herri hartzaileetan ondo kokatuz joan direlako– ekonomikoki, sozial eta baita kultura mailan– baina itzultzeko gogoia ezabatu barik. Nolabait Venezuelarako erbestearen kasuak, salbuespenak salbu, ezaugarri hau du. Egia

da etorrerak eta lehenengo urteak gogorrek izan zirela baina hedapen ekonomiko betean sartua zegoen lurraldera etortzeak, atzerritarrek beso zabalik hartuko zituen eta taldekako erbestea izanenez, honek guztiak oroitzapen atsegina utziko du:

Urte benetan atseginak izan ziren abegiei, hunkimenduei, eraso politiko interesatuen zelatan aurrean ulerkuntzari dagokienez; baina urte oso gogorrek arazo familiarrek konpondu behar diren aldetik, lanbideak eta bakoitzaren gaitasunak Caracas-en zeuden lan eremuetara egokitu beharra hasierako garaietan, bizimoduak norabidetu berriro hutsetik hasteko (UGALDE, M. 1957:10).

Erbesteratu multzo honen instituzionalizazioa ia berehala eman zen: 1940an elkar sorospenerako euskal Elkarte (Asociación vasca de socorros mutuos) sortu zuten; 1941an Euskal Etxearen zuzendaritza taldea osatu zen baita lehenengo egoitza kokatu ere; 1942an Emakume Ekintza (Acción femenina) Emakume Abertzale Batzaren bertsio venezolarra, geroago izen hauxe bera hartuko duela; 1948an Euzko Gaztedia antolatu zen eta Poxpolin (haur taldea) 1951an. Aipaturikoen gain Euzkadi aldiakaria argitaratzen hasten da, Pizkunde abesbatza antolatzen da, baita Euskal Kirolaldia eta Gernika kultur atala ere. Antolaketa bilbadura honek giro jakin bat ezkututzen du, *humus* bat bertan zegoen jendearentzat ezinbestekoa zena:

...orduan dena zen latza hemen. Baina gero horregatik sartu ginen horrenbeste Euskal Etxean, Euskal Etxeak Euskal Herrian bizi izatea pixka bat eragiten zigulako. Ez ginen Euskal Etxetik ateratzen, izan ere ez ginen Euskal Etxetik ateratzen; hemen Euskal Etxean egoteak zuk utzitako guztia gogoarazten zizun. Horregatik arduratzen zitzaion norberari baita ere, hona etortzeko ilusioa neukan... hango partaide sentitzen zinen. Ez dakit azaltzen naizen¹².

Erbesteko hasierako urteetako emakumeen ekinbidea berreraikitzea zaila da. Biziraupena oinarritzeko arloetan (etxea, lana, osasuna, dokumentazioa...) da lehendabizikoa zereginak, eta honek pentsarazten digu euren ekinbidea geroago izango dena baino informala dena zela¹³. Dena dela elkartzeko eta eratzeko deia Londres-eko euskal emakumeen ekinbidean aurkitzen dugu, Basque Women's Association gisa eratu ondoren euskal prentsa American bidez mintzatzen da:

Gu Ingalaterrako euskal emakume guztion elkarteak eratu dugu. Gure baitan Euzkadin geure lurra uzterakoan zeuden joera doktrinal guztiak daude. Hiru oinarritzeko abiaburuk elkartzeko gaituzte: ideal kristauak, arau erlijioso konfesional jaki-

12. Josebe Torrontegi eta Karmentxu Gazteluri eginiko elkarrizketak, biak Euzkadi-Venezuela ikastolako andereño. Caracas, 1996ko apirila. Zentzu bereko lekukotasunak Paris-eko eta Madril-eko Euskal Etxeek bildu ahal izan ditugu, berriro ere etxean bezala aurkitzearen sentimentua azpimarratzen delarik.

13. Izan ere Caracas-eko EABren memoria edo akta liburukiak 1951.era arte ez dugu aurkitu, nahiz eta Euzkadi aldiakariaren "Ecos del centro" atalaren bidez isladatzen diren euren ekinbideetako batzuek. Ildo honetan gaur egungo egoitza 1950koa dela gogoratu behar dugu eta honek beharbada lekualdaketetan erakunde honetako dokumentazioa gal zitekeela susmarazten digu.

naren menpean egon barik; demokrazia, elkarbizitza askearen gisa nahi modura eta euskal nortasuna, bere definizioa alderdi politiko jakin bati ez dagokiolarik¹⁴.

J.A. Agirre buru dueneko Euzkadiko Gobernuari erbestean beren leialtasuna agertu ondoren eta harek euskaldun guztiok batu daitezen eginiko deiarekin bat eginez jarraitzen dute:

Euskal emakumeok: antolatu, lan egin zeuon ahalmenen arabera, lagundu zeuon endako gizonak, Euzkadiko Gobernuaren aginduetara jarri, elkar harremanetan jarri gure talde ahalegina ateramendurik handiena atera ahal izateko.

Ditugun datuekin zail egiten zaigu dei honen zabalkundearen emaitza aztertea baina kontua da erbestearen hasierako urteetatik guk EABren talde eragileak antzeman ditugula Londres, Paris, Caracas, Buenos Aires eta Donibane Lohitzunen ekinbide nagusia espetxeratuak eta euskal errepresaliatuak laguntzeko diru bilketa zelarik, diru hau euren artean bidaltzen zuten eta euren sareen bidez banatzen, hala nola jolas izaerako ekinbide ezagunak. Horrela bada “Ecos del Centro de Caracas” atalean onegintzazko tonbolen berri ematen da, haurrentzat askari antolatzeak, euskal dantzak edo emakumeen abesbatza¹⁵. Berrogeita hamarrek hamarkadatik aurrera EABren ekinbidea memoria eta akta liburukietan jasorik dago eta benefizentzia esparruaren berri ematen digu (tonbolak, otxoak, kaltetuei laguntza eta karitate zeregin ezberdinak), esparru erlijiosoan (mezak antolatzea, jaun hartzeak, sendotzak, ariketa espiritualak...), jai ekintza entzutetsuak (Aberri Eguna, San Inazio, Errege eguna...) eta Poxpolinen eraketa (haur taldea).

Poxpolin-ek bere jatorria Donostiako poxpoliñetan du, kantuan eta dantzan erakusten zitzaizkien neska taldeak, errepublikar gobernuak zuen politika laizistatik haurtzarora gordetzeko eginiko ahalegina:

Emakumeek ekintza honetarako hartua zuten Kursaal-eko soto zabaletan, eta bere antzoki ederrean, egunero eta txandaka ehundaka neskato biltzen zituen kantuak, dantzak, gimnasiak eta mugimenduak entseiatzen zituztelarik. Ekintza honetan jakina emakume gazteek laguntzen zuten eta neskato hauei –hauetarik asko sozialista eta komunisten alabak– egiten zitzairen onuragatik eta aberriagatik dantzak, abestiak eta folklore manifestazioak zabalduak benetako eskaintza egiten zuten (LARRAÑAGA, P. 1978, II:30).

Ekinbide honek, lurraldeko toki askotara hedatuko zena, badu gizonetzkoetan bere erakoa gaztetxoetan, eta erakunde honetan ere emakumeek garatu zuten euren ekinbidea; batzuek gainera oso entzutetsu eta herrikoiak izatera iritsi ziren egiten zituzten ekitaldien ikusgarritasunagatik.

14. BASQUE WOMEN'S ASSOCIATION (1944). “A las mujeres vascas”, *Euzkadi*/ 8, 27-28. London-en 1943ko irailaren 25ean datatua eta Lauri Puerta, M. Teresa de Laruzea, M.Cruz Fernández Zubelzu, Anita de Gabarain, Dorothy Clark eta Miren de Irujok sinatua.

15. Ecos del centro. (1946). “Tonbola”, *Euzkadi*, 31.orri. Ecos del centro (1947). “Actividades de acción Femenina Vasca”, *Euzkadi*, 43.orri.

Caracas-eko poxpolinak zein neskatoak zein mutikoak biltzen zituen eta emakume batek sortu zuen, Pilar Olariagak 1951an. Bere zeregina gerrate aurrekoaren antzekoa da:

Gaztetxoei euskaraz otoiitz egiten eta abesten erakusten zaie eta Euzkadiko geografia eta historia ikasketen hastapenak. Gorulari eta dantzari taldeak sortu dira, eta gimnasia erritmikoko erakustaldi bat ere egin da 120 umek esku hartu zutelarik¹⁶.

Askariak, zine emanaldiak, gertakari erlijiosoak (Jaun hartzeak...), era guztietako erakustaldiak izango dira eginiko ekinbideak urteetan zehar mimetikoki burutuko direlarik, bai Poxpolinen izenean edota aparteko izaera eta iraunkorra hartuaz doazen ekinbide gisa, dantza taldea kasurako.

Baina, Donostian adibidez gertatzen zen bezala, Caracas-eko EAB ez da hezkuntza formalean murgilduko. Aurreko sasoiko ekintzen birsortzea nabarmena da baina diru iturrien lorpena espetxeratu eta behartsuak laguntzeko izango da, euren ahalegin handienak gidatuko duen ekinbidea (FERNANDEZ, I. 1997)¹⁷. Franco-ren erorketa eta etxera itzultzea berehalakoa izango direnaren ustea eta euskal kontaktuak zituzten ikastetxeak bazeudela izan daitezke hezkuntza formalaz ez arduratzearen arrazoiak. Dena dela, Euzkadi-Venezuela ikastolaren motorea emakume batengandik dator: Itziar Mujika.

EUSKAL ESKOLA ESPERIENTZIA ERBESTEAN: EUZKADI-VENEZUELA IKASTOLA

Erbesteratuen aldetiko ekintzak erbestea gertatu aurreko lanari segida ematean zetzan arren, Venezuelako euskal erbesteratuen kasuak badu izan, hezkuntzaren ikuspegitik, berezitasun nabarmena zeren neurri bateko egonkortasuna eskuratuko zuen hezkuntza erakundea eratzerantz helduko baitziren, ikastola bat hain zuzen. Euskal erbestean adibide bakarra, bere baitan etorkizuneko esperiak eta hezkuntza egikaritzak biltzen dira urruntasunean bizitu den sorlekuarekin kideza lokarria mantentzeko begira. Esperientzia honen hogeitau urteek neska eta mutiko andana hezitzeko epe luzea suposatu zuten, epe bat zeinean euskal tradizioei so eginez eta euskararen igorketaren bidez zuzenean ezagutzen ez zuten Euskal Herriarekin harremanetan mantendu baitziren.

Munta honetako hezkuntza esperientziarekin topo egitearen lehenengo sorpresa atseginak, ordea, ez zuen segidarik izan erakunde honi buruzko artxibategiaz galdetzen hasi ginenean. Izan ere, ez dago esperientzia honi buruzko dokumentu bildumarik ezta artxibategirik ere, nahiz eta Caracaseko Euskal etxean kokatuta egon zen. Datu dokumentalen eskasia ikusita, batez ere lehenengo garaiari dagokionez, testigantza pertsonalak jasotzera jo behar izan dugu ikastolaren sorrera eta

16. E.A.B. ACCION FEMENINA VASCA, (1952). "Memoria 1951-51". Caracas. Documento mimeo.

17. Preso eta errepresaliatuaren aldeko diru laguntzen antolamenduaz ikus:

martxan jartzea ezagutu ahal izateko¹⁸. Dokumentu falta hau ikastolaren sorrera eta bilakaeraren baldintza beraiengatik uler daiteke, zeren proiektu horretako partaideentzat ikastola Euskal Etxearen kokagunean garatzen zen beste ekintza bat gehiago baitzen, sorlekuaren berezitasunak bizirik mantendu nahi izatearen giro orokor horretan txertaturik. Uler daiteke, beraz, honelako testuinguruetan gertatzen ari denaz jasoketa idatzirik ez egotea, azken batean benetako garrantzia duena proiektu beraren aurrerabideak asmatu eta gauzatzea baita.

Ikastolaren sorrera eta bilakaera ulertu ahal izateko, Venezuelako euskal erbesteaz orain arte esandako guztiaz gain, Euskal Etxeak bertako kideentzat jokatzen duen papera ere, alegia Euskadiren egiazko parte bat izatea ere aintzat hartu behar dugu. Talde identifikazioa, elkartasuna eta “euskal familia handiaren” elkarbizitzarekin batera emakumeek jokatutako papera ere aipatu behar dugu, familia txikiaren mugaz bestaldera igaroz hezkuntza funtzioa bereganatu zutelarik. Esperientzia honen bultzatzaileentzat, ikastolak norberaren familian jasotako hezkuntzaren jarraipena suposatu zuen, bai eta haurren bihotzei Euskal Herria hurbiltzearen aukera paregabea ere.

Ikastolaren sorrera

Esan bezala, ikastolaren sorrerara hurbiltzea ahalbidetzen digun testuinguru esplikatzailea 1942.ean eraturako Euskal Etxean aurkitu behar dugu¹⁹. Alta, badago aldagai multzo bat Euskal Etxea harreman marko aldakor baten aurrean jartzen duena. Izan ere, alde batetik erbesteratuen esperoak eta desioak ditugu eta, bestetik, “euskal erbestea”-k, bere adierarik globalenean nahi bada, une horretan jokatu behar duen papera: erbestearen bilakaera; bigarren belaunaldiaren agerpenarekin erbesteratuen bizimoduan soma daitezkeen aldaketak; Francoren erregimenarekiko nazioarteko harremanek hartutako bidea eta euskal nazionalismoaren orientazio berriak; testuinguru horretan Euskadira bueltatzeko aukeren zailtzea, etab. (BELTZA, 1977). 1965.ean²⁰, ikastola eratzea planteatzen da.

18. Lan hau egiterakoan Caracaseko Euskal Etxean aurkituriko zenbait dokumentu, ikastolaren harremanetan egondako zenbait pertsonen dokumentu pribatu eta, batez ere, Caracasen zein Euskal Herrian elkarriketatutako lehenengo andereñoek emandako informazioaz baliatu ahal izan gara. Pertsona guzti hauei ikastolaren historiaren berreirakuntza dokumentala egiteko orduan izan duten etengabeko zabalasuna publikoki eskertu nahi diegu. Lehenengo andereño guzti hauei, A. Mujika, J. Torrontegi, K. Gaztelu de Gainzarain, L. Goimendi eta L. Bilbao, lerro hauetatik gure omenaldi xumea egin nahi diegu, euskal hezkuntzaren arloan eginiko ekarpen bereziagatik.

19. UGALDE, M. De (1962): “El alma del Centro Vasco” In *Los vascos en Venezuela. 20 Aniversario del Centro Vasco de Caracas 1942-1962* 50-51. Orri. Omenezko artikulu honetan burututako ekintzak seinalatzen dira: dantzak, hitzaldiak, pilota partiduak, Aberri-Egunaren ospakizunak, baita “*umeei beren herriaren hizkuntza eta kantuak irakasteko gure emakumearen debozioa*”. Euskal etxe honen arrakasta euskal erbesteratuek sortutako garrantzitsuenetakotzat jotzen da.

20. Euskal Etxeko ikastola eratu aurretik Mujika Andereñoaren eskutik euskarazko klaseak ematen ziren, XX. urteurreneko omenezko liburuan, ohartxo adierazgarri batez eta hiru argazkik lagunduta, jasotzen den moduan: “*Las goresgarria, lan txalogarria: euzkarazko klaseak dira, gure hizkuntza zaharra, historiaurretik bizirik dirauen eta beste ezaugarrik baino gehiago batzen jarraitzen gaituen hizkuntza. Eta euzkera larunbata arratsaldez entzuten da Euskal Etxean, Mujika andereñoaren eskoletan, zeinak neska eta mutikoekin baturik Sabino, Azkue eta abarren irakaspena gaurkotzen duen. ...*”

tzen denean, euskal erbesteraren mundua Venezuelara lehenengo erbesteratu eta migratzaileak heldu zireneko oso bestelako esperotan mugitzen da²¹.

Hezkuntza formala eta euskal eskola abian jartzea Caracas-eko euskal etxearen inguruan mugitzen ziren ehunaka haurrentzat garai hartako euskal prentsan nabarmen agertzen den kezka dugu²². Lehenengo erbesteratuen etorreratik sei urtera, 1945an, Euzkadi aldizkarian “La escuela vasca en Caracas. Caracas´eko Euzko Ikastetxea” izenburupeko artikulua aurkitzen dugu eta bertan Euskal Herriarekin dagoeneko harreman zuzenean ez dagoen belaunaldi baten hezkuntza zalantzatan jartzen da:

... baño beren euskal etorkizunari orain arte baño ardura geiagorekin begiratzen ez badiogu, astiro baño ziur, umetxo oiek guziak gure gogoetatik urruntzen joango dira, gure sorlekuko girorik ez bai dute²³.

eta, zentzu honetan sendiak egin dezakeen lana aitortzen baldin badu ere, tokirik egokiena eskola litzatekeela gaineratzen du. Egileak, gainera, ondorengo urteetan euskaldun askoz gehiagoren etorrera aurreikusten du (aurreikuspen hau benetan bete zelarik) eta honek argudioan sakontzeko arrazoia emango dio:

Datozen urteetan Caracas´eko eusko-taldea aundia izatera eldu diteke, ta bearbearrezkoa zaigu alik euskaitasunik sendoenean gartutzia Euskalerrri zati ori, egunen batian eusko izate ta jakintzaren oñarri bizia izatera irixi bai diteke.

Gabiriaren artikulua tonua premiazkoa izan arren eta proiektuaren legeztapenarekin venezuelar betekizunekin hastea proposatzen badu ere, ez dugu gai honi buruzko beste inolako aipamenik aurkituko 1952 arte, non euskal gaztediaren aldizkarian idatziriko artikuluan galdetzen baita eskola hau noizko izango den. Argudioa egileak orduan Caracas-en ematen duen mila haur euskaldunen kopuruaren tamaina bezain erabatekoa da eta premiazko ikusten du eskola antolatzeari lau urtetik hamabi urtera bitarteko ikasleez ardura dadin (kindergarten eta lehen hezkuntza). Egileak tonu pragmatiko eta laburrean Venezuelako Hezkuntza

... *Euskal etorkizunaren esperantza da. Aberri-pedagogiaren lan latza da. Eta Euskal Etxeko bazkideen irrikaren dei gogorazlea da: Euzkera gure etxean*” *Los vascos en Venezuela. 20 Aniversario del Centro Vasco de Caracas 1942-1962*. Caracas, 1962, 18. orri.

21. Arazo multzo hau ez da eginiko elkarrizketetan modu zuzenez aurkeztu baina bai esan genezake erbesteratuen une horretako esperantza pertsonal eta familiar anitz esplikatu litezkeela parámetro orokor horietatik.

22. Hezkuntzarekiko ardura agerikoa da ez soilik proiektu jakin hau abiatze orduan baizik eta gogoeta eta aztertze gai modura. Honen adibidea Euzkadi aldizkari berean aurkitzen dugu 1947an erbesterako euskal idazleentzat lehiaketa bat antolatzen zuelarik eta nahiz eta gaia askea izan gomendatu egiten zen “historia, hezkuntz arazoak eta haur ipuinez” izan zitezela lanak. (*Euzkadi*, 43 zkia, 1947ko urtarrila). Argitaratutako ekarpeni buruzko adibide batzuek honako hauek ditugu: NABARRRO, V. (1947/VII): “Ideas sobre una organización de la enseñanza en Euzkadi”. *Euzkadi*, 49 zkia. TELLAGORRI (1947/XI): “Sobre la instrucción del pueblo vasco”. *Euzkadi*, 53 zkia. DONOSTI (1950/I): “Koldo de Umanan y las escuelas maternas” *Euzkadi*, 66 zkia.

23. GABIRIA (1945): “La escuela vasca de Caracas- Caracas´eko Euzko-Ikastetxea”. *Euzkadi*, 24 zkia, 7-9.

Ministerioari baimena eskatzea proposatzen du emandako irakaspenak balio ofiziala izan dezan eta goi mailetan beste ikastetxe batzuetarako sarrera bideratu ahal izateko; irakasleriari buruz hirian dauden euskal hiztunen artean lor daitezkeela uste du edota Euskal Herritik ekarri, edota baita venezuelar jatorriko beste batzuek; curriculumak lurraldeko ofizialak beharko luke baina haurrei euren aberriari eta euskarari buruz zerbait irakastea ez litzatekeela zaila izango gaineratzen du; gurasoek hornitu beharko lukete diruz eta garraioaren arazoa Caracas bezain handia den hiri batean eskola autobusa antolatuz bidera daiteke²⁴.

Prensa idatziaren orrietatik gaia desagertu arren euskal eskola sortzearen kezka egoera estarian eta euskal etxeko gaztediaren biltokiari lotua mantentzen zela ematen du. Zentzu honetan berrindartzen gaituen beste erakuskari bat Andoni Arozenaren gaiari egiten dion aipamena da, euskarari eta euskal etxeko helduen artean honen irakaskuntzarekin lotura handiko pertsona, eta elkarriketa batean dio:

Dena dela, Euzko Gaztediko kide batzuek azken aldi honetan euskal kinderraren gaia aztertu dute eta ematen du bihozkadak adoregarriak direla hasieran ahalegina larunbat arratsaldeetara mugatuko balitz ere²⁵.

Ikastolaren sorreraren ingurua azaltzeko kontutan izan behar ditugu hirurogei hamarkadako euskal sendien kezkak. Beste aterabide batzuen artean herrira itzultzea ere badago: sendien finkapena, Venezuelan errotzea, harreman sozial eta profesional berriak, Venezuelan jaiotako seme-alabak, eta abar. Aldagai politiko, sozial, ekonomiko, familiar eta pertsonal multzo honen artean koka dezakegu ikastolaren sorrera erbesteratu eta migratzaileen seme-alabentzat eskolatze arazoari irtenbide gisa. Hautabideak argi zeuden: venezuelar sisteman eskolatze haurrak edota eskolarizazio bide bat non hizkuntza eta euskal kultura ikastea edota gordetzea ahalbideratuko baitzen. Arazoa gehien azpimarratu zutenak euren etxeko hezkuntza ereduak seme-alabak zihoazen eskoletan jarraipenik ez zuela ikusten zuten zenbait familia ziren, asteroko euskara klaseak ematen baziren ere. K.G.ren testigantza egoera honen adierazgarri dugu:

Haurrak hiru urte zituenean Las Mercedes ikastetxera bidali genuen, ikastola ez zena, bada, jakina dena zen erdara, Venezuelakoa. Eta urte horretan, ikasturte horretan galdu zuen euskara, gaztelera mintzatzen hasi zen. Orduan esan genuen: ezinezkoa da. Nire senarrak diostan: Demontre! Ezinezkoa da! Haurrak oraindino urteak ditu aurrerantzean ere gaztelera ikas dezan. Ateratzera goaz euskara sendotzeko. Ikastetxetik aterako dugu.

Euskararen iraupenaren kezka izango da ikastolaren sorrerako beharrezko diren baldintzak eman daitezen ahalbideratuko duena.

Egoera honetan menturari sor zaion sorreran ezin daiteke pentsatu baizik eta esperientzia sortzeko hazia jarriko zuten faktore multzo batean. Euren artean lehenago esanekoaz gain aipatu dezakegu ikastolaren bultzatzaile nagusitzat

24. LEIZAOLA, X. (1952): "Caracaseko eskola noizko?". *Euzko Gaztedi*, 23 zkia. Caracas.

25. EUZKO GAZTEDI (1959): "Euskara eskolak eta euskal kinderra". *Euzko Gaztedi*. Caracas.

jotzen den, Arantza Mujikaren euskararen aldeko ekintza erabakigarria. Ekinbide honen bultzatzailetzat bera jotzen duten datuak agertzen dira hala ahozko testigantzetan nola idatzizkoetan Euskal etxearen 25. urteurrena ospatzeko argitaratutako liburuan bezala:

beti egon dira euskara klaseak egotearen aldekoak, baina hasieran esan den bezala ikastolaren ideia sortu zen Caracasen gure Euzkadiren zatitxo bat egin nahian; bai hurrek euskaraz mintzatu, abestu eta jolas dezaten ikastola. Ideiak sortu egiten dira eta sortze beretik ama izaten dute, kasu honetan Arantza Mujika, ideia agertu ezeze egia bilakatu arte bururatu zena. 1965ko urriaren 10ean ekintzarik aipagarrienari eman zitzaion hasiera, EUZKADI IKASTOLARI²⁶.

Idea honen bultzatzailea lanean zebilen euskal irakaslea zen, “Las Mercedes” ikastetxe pribatua irekia zuena, bertara aurrekolako euskal haur ugari joaten zelarik.

Beste alde batetik, Caracasen ikastola baten sorrerak ez dauka harreman zuzen edo agerizkorik Euskal Herrian sasoi honetan ematen ari den ikastola mugimendurekin (FERNANDEZ, I. 1994). Testigantzaren batek Donostiako Elbira Zipitriaren etxe-eskola aipatzen du, baina esperientzia bien artean ez dugu inolako harremanik aurkitu. Egia da ikastola, familiaren inguruaz araindi, eskolaren bitartez haur txikien euskara irautearen lana planteatzearen beharrari erantzuten dion erreferente sinboliko gisa eraikitzen dela eta zentzu honetan badaude antzerakotasunak nahi zen eskolatze motari dagokionez, baina ez eskolatze proiektu oso eta osatu gisa, ezaugarri ulerkorra bestalde kontutan harturik Caracaseko ikastola eskolarizazio osoa venezuelarra eta erdalduna den testuinguruan sortu eta hazten dela. Caracaseko euskal sendiek euren seme-alabak Las Mercedes ikastetxera eta Euzkadi-Venezuela ikastolara bidaltzen zituzten, ondoren nagusiki mutilen batxilergorako La Salle eta San Iñazio ikastetxeak aukeratzen ziren. Neskak ordenu erlijiosoen zeramaten Mater Salvatorum eta María Concepción ikastetxetara bidaltzen ziren.

Caracaseko ikastolaren sorrera helburuak ez dira argi agertzen hasierako sasoi honetan ikusi ahal izan ditugun dokumentuetan. Argi dago haurrei euskara eskolak ematearen aldeko iritzia zegoela, eta era berean hurrek hasierako urteetan jasotako euskara ezagupenak oso denbora gutxian galtzen zituztela ikusten duten sendien nolabaiteko egonezina, baita euskal etxea ekintza eta iharduera guztiak bildu nahi diren elkargunea dela, eta abar. Baina era berean Euskadira bueltatzearen aukera oraindik burutik kendu ez duten familien pentsamendua sarritan agertzen zen. Osagai multzo hau izango da hain zuzen ikastolaren helburuak itxuratuko dutenak eta martxan jartzen denean estari agertuko zaizkigunak. Hau da, euskara eta euskal kulturaren ikasketa eta iraupena – euskal izaeraren ezaugarritzat²⁷ jotzen

26. Caracaseko Euskal Etxearen 25. urteurrena 1942-1967. Caracas, 1967, 73. or.

27. Ikastola euskal izaeraren (identitatearen) eraikuntzan lagungarri gertatzen ote zen galderari, informatzaile batek erantzuten zigun baietz: “Ikastola, bere ohiturak, abestiak, denak eragin zuen haurrengan, zalantzarik gabe. Euskaraz hitzegiteko ohitura, ikasturte amaierako ekitaldietan abestea, Gabonak, Aberri-Eguna... dantzak, pilota. Denak izan zuen eragin handia sasoi hartan” (K.G.) Gai hau sakonago aztertua dago: URIBE-ETXEBERRIA, A.& FERNANDEZ, I. 1998.

direnak– eta Euskal Herrira itzultzearen itxaropen ez urruna²⁸. Sakoneko kezka hauekin Arantza Mujikaren ahalegina ez da alferrekoa izango. Euskal Etxean ekimena bultzatuz luzaroan irauteak bere emaitza izango du 1965an, “Euzkadi-Venezuela” izenarekin, ikastola martxan jartzen denean.

Ikastolaren jardunbidea

Ikastola martxan jartzeak aldez aurretik tokiaren, irakasleen, materialaren, eta abarren ahalmenak ezagutzea eskatzen du, hala nola ikasleena. Bere ezarpena bultzatzeko eragile talde bat sortuz doa non aurkitzen ditugun honako emakumeak: A. Mujika, J. Torrontegi, K. Gaztelu, M. Leizaola, A. Mantxobas, M. Uzkania eta abar. Lehengo helburua ikastolara zenbat sendi zegoen prest euren seme-alabak bidaltzeko jakitea zen, lan hau etxetik burutuko da. Erantzuna ez zen bateratua izan, sendi asko horrek zeuden giroarekiko urruntzea ekar zezakeelako beldur zirelako. Beste sendi batzuek proiektuaren alde jokatu zuten, hasierako hamaika ikasleko taldea sortzea ahalbideratuz. Tokiaren arazoari irtenbidea eman zitzaion Euskal Etxeak ikasgelatzat leku bat utzi baitzuen, zegokion eskola materialarekin.

Dena dela arazorik larriena irakasleriarena zen. Ikastola legeztatua²⁹ izanik, nahitaezkoa zuen venezuelar irakasle titulu ofiziala zuen irakaslea. Horretarako hasiera hasieratik Libe Bilbao agertu zen, baldintza hau betetzen zuelako. Gauzak honela Venezuelako Hezkuntza Ministerioaren aurrean, maistra honen izena agertzen zen, beste tituludun eta titulugabeko pertsonak ezarriz joan ziren ikasmailez arduratuz joan zirelarik. A. Mujika arduratuko zen berriro ere andereño hauek bilatzeaz, irakaskuntzaz ardura ziitezen zenbait emakume beratu zituelarik. Lehendabiziko ikasturtean haur guztiak Itziar andereñoaren ardurapean egon ziren, egun erdiz. Geroago Karmentxu Gaztelu arituko zen, irakasle eskolako ikasketak ez bazituen ere, proiektuan sartu zen haur eskolako irakaskuntzaz arduratu zelarik. Josebe Torrontegi, euskal maistra titulaturia baina han balioztaturik ez zuena, venezuelar hezkuntza legediaren araberrako lehenengo, bigarren eta hirugarren mailaz arduratu zen. 1967tik aurrera ikastolara andereño gehiago sartuko ziren, matrikulazio gorantz zihoalako eta maila gehiago ematen zirelako, era berean irakasleriaren %75^a venezuelarra izatearen baldintza bete beharra zegoelarik. Portzentaia hau bete ahal izan zen euskal andereñoen etengabeko nazionalizazioarekin eta Venezuela jaiotako andereñoekin baina honek, venezuelar curriculum emateko beharrezanarekin bat, apurka apurka maila guztietan gero eta nabarmenago izango zen gazteleraren ezartzea ekarri zuen ezinbestean.

Ikastolari eragiten zion beste arazoetariko bat eskola garraiora izan zen. Etengabeko matrikulazio gorakadarekin bat hiriaren zabalkunde urbanistikoa eto-

28. Bultzatzaileetarikoa batek ikastolaren proiektuari buruz galdetuaz erantzuten du: “*Euskadira itzultzea. Ulertuko duzunez ez zegoen beste helbururik, besterik zentzun bakoa zen. Zer egin behar du haur batek hemen euskara ikasiaz? Beti pentsatuz haur asko itzuliko zirela ... eta apurtu bat nor-tasunagatik, euskaldun senti zitezen*” (J.T.).

29. 1967ko martxoaren 16an “Dirección de Educación Primaria y Normal” delakoak idazki bat bidali zion “Euzkadi-Venezuela” ikastetxeko zuzendariari Hezkuntza legearen arabera ikasketak onartuaz, 1966-67 ikasturteko izen ematea Lehen Hezkuntzan baimenduz.

rri zen, arazoa nabarmenki azalduz; haurrak gero eta hiriko toki ezberdin eta aldenduagoetatik zetozen trafiko gero eta handiagoaren barnean. Haurrak bildu eta euren etxeetara banantzeko erabiltzen zen denbora gero eta handiagoa zen, honetarako irtenbiderik ez zegoelarik. Egia esan ikastolaren kokapena El Paraiso hasiera batean ezin hobeagoa zen baina hiriaren zabalkundearekin eta euskaldunen bizileku aldaketekin gero eta urrutiago geratuz joan zen. Eragile hauek garraio eskolarrarenganako menpekotasun handiagoa ekarri zuten eta zeregin honetan emandako denbora. Ikastolak iraun zuen bitartean arazo hau areagotuz joan zen.

Ikastolaren hasierako hamar urteetan venezuelar hezkuntza sistemak ezarzen zituen eskolarizazio maila ezberdinen gehikuntza sasoi antzeman daiteke, bai ikasle eta bai irakasleen gehikuntzarekin bat datorrena. Curriculum eskolara venezuelar irakaskuntzaren berezko gaiez gain euskara klaseez eta eskolaz kanpoko ekintza multzo batez, dantzak, abestiak, otoitzak eta abarrez zegoen osatua, euren bidez euskal tradizioen ezagutzan sakontzea bilatzen zelarik.

Araudia eta eskola antolakuntza

Aztertzeko aukera izan dugun dokumentazio eskasean, gehien batez Javier Zubizarretaren artxibo pertsonalari esker, ikastolaren guraso elkarteko zuzendaritzakoa izan zen sasoiakoa, aldaketa nabarmenak antzematen ditugu 1975tik aurrera. Aldaketa hauek zerikusia dute ikastetxearen araudi berriaren idazketarekin, pedagogia orientabideekin eta irakasle eta ikasleen egonkortasunarekin.

Pentsatzen dugu 1975-76 ikasturte aurretik ere bazela ikastetxearen funtzionamendurako araudia, "Actualización del reglamento de la ikastola Euzkadi-Venezuela sometida a consideración de la asamblea"³⁰ izeneko dokumentuan aurkezten diren zuzenketak kontutan harturik. Araudi honetan geroago "Euzkadi Venezuela Ykastola" elkarte zibila izango zenaren oinarriak jarri ziren erregistro merkantilaren arabera³¹. "Euskal Etxeko kideen seme-alabentzat" sortua izateaz gain, aipaturiko elkarteko xede eta oinarrien artean honoko hauek agertzen zaizkigu³²:

- Elkartearen helburua Hezkuntza Ministerioak agintzen duen ikaskuntza ematea da. Horrez gain Euzkera eta euskal aberkoi formakuntza irakastea.

30. Dokumentu honetan eta kontuei dagokien beste materiale batzuetan, ikasle kopurua, irakaslegoari ordainketak eta abar Jabier Zubizarretak eman dizkigu denbora luzez Euzkadi-Venezuela ikastolako kultur elkarteko buru izan zena.

31. Elkarte honen sorrera, sortze aktaren arabera, 1979ko martxoaren 21ean izan zen eta Datos Egunkarian 1979ko maiatzaren 8an datorrenaren arabera, IX urtea, 28028 zkia, 8-9 or. Laugarren atalean elkarte honen iraupena hogeit urtekoa izango zela agertzen da, luzatu zitekeelarik. Elkartearen sorreran aktaren 53 pertsona sinatzaile agertzen dira erregistro merkantilerako.

32. Araudi honek "hezkuntz komunitatearen erregimenaren" orientabide orokorrei egokitzea bilatzen du, Rafael Caldera errepublikako buruak 1979ko urtarrilaren 7an ateratako dekretuaren agindupean.

- Elkarteko hezkuntza komunitatea ikasleez, ordezkariez, irakasle eta guraso elkarte eta ordezkariez osatua dago.

Hezkuntza helburuei bereziki dagokienez, pedagogia ikuspuntutik zenbait orientabide berritzaile azpimarratzen dituzten aldeak agertzen dira:

- haurren nortasunaren formakuntza osoa;
- ikastolan aurrera eramango diren programa guztietako ardatza begirunea, norbanakoaren ezberdintasunenganako ulermena eta arreta izango dira;
- inoiz ez da gogorkeria erabiliko ez berbazkoa ez keinuzkoa portaera bat zuzentzeko;
- ekintzak haurrengan ikasketarenganako maitasuna emaraztera eta ikasteko gogoia bultzatzera bideratuak egongo dira eta arazoek konponketan atarabide berriak bilatzeko kezka sortzeko.

Ideario pedagogiko honen barnean kristau orientabidea ere tartekatuko da, alderdi garrantzitsua gerraurreko nazionalismoan, konfesionala baita eta bere osagai erlijiosoak argi utzi zuen bere esaldi ospetsuan “Jaungoikoa eta Lagi Zarrak”. Azkenengo atal honek badirudi gurasoen aldetik nolabaiteko arreta bereganatu zuela, kontutan hartzen badugu idatziriko nota batek dioena:

Uste dut haurren heziketa kristau orientabidekoa izatea ager dadin ados ez daudenekin ez dela arduratu behar (jakina, nik ez nuke hasierako aktan jarriko baina bai araudian), eta hori horrela uste dutenek horregatik haurren izenak emateari orain arte uko egin ez diotelako. Uste dut gehiengoak orientabide hori nahi duela seme-alabentzat.

Aitzin-neurri hau bada ere, kontua da 1979ko hasierako aktan orientabide hau argi eta garbi agertzen dela hirugarren atalean:

Ikastolaren helburua esperimendazioa, zabalkundea eta irakaskuntzaren metodo ekintzaileen erabilpena izango da haur eskola eta lehen hezkuntzan, Hezkuntza Legearekin bat etorririk eta era berean euskal hizkuntza eta balio aberkoiak, kristau orientabidearen barnean haurren nortasunaren formakuntza osoa bilatuko duelarik.

Aipaturiko araudiaren gainontzeko artikulua orduetaz, oporretaz, irakasleez, diru sarreraz eta administrazioaz dihardu.

Zenbait orientabide pedagogikoren berrikuntzei buruz Amaia Barreda de Urrestik 1974-75 ikasturteaz eginiko txostena oso argigarria dugu, berau ikastolako pedagogi orientabidean laguntzaile izan zen eta elkarrizketatzeko zoria ere izan genuen. Txosten horretan pedagogiko honen hezkuntza kezkak agerian gertatzen dira. Garatutako ekintzak bai hezkuntza formalaren aldeak nola talde dinamikari dagozkionak, irakasle taldearen prestakuntzari, ikastetxearen antolaketari eta abar irizpide pedagogiko eta psikologiko berritzaile batzuen menpe planteatzen dira. Hausnarketa hauen erakusgarri, zein heziketaren alde egiten duen esanez, honoko berbak ditugu:

Heziketa bat hezitzailearengan indibiduo gisa duen berezko balioa bultzatuko duena eta beraz gjarzte bateko partaide gisa bizitzaren aurrean duen erantzunkizuna zeinak ahaleginak eskatuko dizkion benetako elkarbizitza lortzeko eta helburu hau eskuratzeko aldatu behar du lehia elkarbanatzeagatik, eraso ulerkuntzagatik, menpekotasuna autoerantzunkizunagatik eta guzti hau lor daiteke eskolan onarpena, elkarrenganako begirunea eta askatasuna bultzatuaz.

1977 eta 1979 artean elkarteak sortu eta gero ospatutako bileretan harturiko akordioak kontutan hartzen baditugu, ikastetxearen dinamika osoa ikus dezakegu eta kezka ekonomikoak, garraioarenak, irakasleriaren kontratazioarena, beka ematea eta abar. Batez ere administrazio mailako arazoak dira eta oso noiz-behinka biltzen dira arlo akademikoko akordioak, esaterako: “kinder eta prestakuntzako andereñoekin berba egitea Euzkadiko historia, geografia eta abarren ikasketan sakontzeko” edota irakasleriaren prestakuntzaz: “Kinder eta prestakuntzako andereñoekin berba egitea Simon Bolivar Unibertsitateko haur eskola ikastaro berezia egitea aztertzeko”³³.

Saso honetan ikasle kopurua finkoa bazen ere 1979-80 ikasturteetik aurrera beheranzko joera antzematen da. Gertakari honek eragina izango du irakasleriaren kontratazio txikian eta, are gehiago, ordura arte ikastetxeko plantilakoak ziren zenbait andereño baztertu egin ziren, Graciela Bravo eta Eulalia Ríos irakasle venezolarren kasuan bezala, 1979an kaleratuak matrikulaturiko haur gutxien arrazoiz. Ikasleriaren bilakaera urte hauetan ondorengo taulan agertzen da:

Ikasleen matrikula. 1976-1980 ikasturteak

Mailak	1976-77			1977-78			1987-79			1979-80		
	M.	N.	O.	M.	N.	O.	M.	N.	O.	M.	N.	O.
Kinder	14	12	26	13	7	20	4	8	12	8	6	14
Prestakuntza	15	10	25	12	9	21	10	1	11	6	5	11
Lehenengoa	3	7	10	13	8	21	9	7	16	5	3	8
Bigarrena	9	2	11	5	6	11	10	10	20	8	6	14
Hirugarrena	5	7	12	10	2	12	4	7	11	10	9	19
Laugarrena	10	6	16	8	7	15	11	1	12	4	4	8
Bosgarrena	6	4	10	7	4	11	7	7	14	8	-	8
Seigarrena	1	8	9	5	3	8	6	4	10	6	6	12
GUZTIRA	63	56	119	73	46	119	61	45	106	55	39	94

33. Ikastola batzordeko 1978ko irailaren 7a eta 1978ko irailaren 10eko akordioak hurrenez hurren. Javier Zubizarretaren berariazko dokumentazioa.

Curriculumari dagokionez hala nola ebaluaketa sistemari³⁴ venezuelar hezkuntza sisteman indarrean zegoen araudiari egokitzen zitzaion. Lehenengo hiru maileri zegokien gaien artean ondorengoak zeuden: hizkuntza eta literatura, matematikak, ikasketa sozialak, zientzia, osasunerako heziketa, arte plastikoak, musika hezkuntza, gorputz-heziketa, higiena eta eskulanak, lehenengo mailan ematen ziren euskara klaseez gain. Euskararen irakaskuntzan erabilitako materiala Euskal Herrian euskararen irakaskuntzarako erabiltzen zen testu eta material didaktiko berbera zen, kinder eta prestakuntza mailetan euskararen irakaspena joko, abesti eta elkarrizketen bidez egiten bazen ere³⁵.

Venezuelako ikastolak Euskal Herriko ikastola baten baldintzak betetzen zituela esatea gure aldetik aursardia handia izango litzateke, eskola curriculumari begiratzen badiogu venezuelar sistema ofizialean indarrean zeuden irizpideekin bat zetorrelako, euskararen irakaskuntza eta Eusko Etxeak eta ikastolak berak eskolaz kanpo programaturiko beste zenbait ekintzetan izan ezik, egoera hau oso urruti zegoen euskarak komunikazio hizkuntza zeregina zuen planteamolde eskolarretatik. Ez dago biderik euskal curriculum formalduaz ere pentsatzeko, baizik eta Euskal Etxearen testuinguruak eragiten zuen eraginarengatik ikasleriaren prestakuntza eskolar soilaz gain beste ekintza batzuek antolatzeke ahalmenaz³⁶. Azken baten venezuelar hezkuntza sistema nagusituz joango da, beste modura ezin zitekeen eta, eskolarizazio amaierari begira.

Matrikulazioaren etengabeko beherakada, derrigorrezko hezkuntza bederatziko ikasmaitalara zabaltzea eta aldakorra zen testuinguru politikoan zeuden itzultzeko itxaropenekin batera izan ziren ikastola apurka apurka beherantz etortzearen arrazoiak. Ikastolaren kanpo eta barne osagaiak lagunduko zuten bere azken desagertzea 1985an trauma barik izan zedin, esperientzia aberasgarri baten usaia utziaz airean andereño, ikasle eta gurasoen testigantzei jarraituz.

34. Aztertutako materialaren artean venezuelar hezkuntza sisteman indarrean zegoen arau ezberdinak eta araudiak aurkitu ditugu non ikastetxea berauekin bat zetorrela frogatzen baitute. Zentzu honetan ebaluaketa "Normas para la aplicación del reglamento sobre régimen especial de evaluación para las ramas de educación pre-escolar y de educación primaria" izenekoaren arabera ezarriko ziren (Hezkuntz Ministeritzaren 1976ko urriaren 13ko 198 zenkidun Agindua). Kontutan izan behar dugu ebaluaketa eskolarizazioaren osagai garrantzitsua zela zeren bigarren hezkuntzako institutu eta ikastetxeetan sartu ahal izateko azterketa batzuk gainditu beharra baitzegoen. Dena dela ikastolan jasotako formakuntza oso maila onekoa zen azterketa horiek errez gainditzeko.

35. Euskal Etxearen liburutegian euskararen irakaskuntzarako zenbait testu daude hala nola irakurketa liburua, euren artean **Xabiertxo**, **Muxu Gorri**, **Martin Txilibitu**, eta abar aurkitzen direlarik.

36. Hori dagokionean gogoeta txiki bat egitea badago esperientzia honen sorrera ulertzeko eta honek 1939 erbestealdiaren aurreko hezkuntza praktikekin izan dezakeen erlazioa taxutzeko. Lehenengo eta behin Caracaseko ikastolarena esperientzia berezia dela azpimarratu behar da Euskal Herrian zeuden antzekoekin aldentzeko zaila delarik; ozeanoaren alde bateko eta besteko gurasoen egonezina antzerakoak direla ez galtzearen zentzuan eta nortasun erreferente bat eraikitzean non hizkuntzari garrantzia ematen zaion, egia da neurri ezberdinean, baina ikusmuga, hezkuntzaren ikusmoldea, ingurune sozialarekiko harremanak eta abar ezberdinak dira. Gerrate aurreko esperientziekin antzerakotasunak bilatzen baditugu hezkuntza ez formalaren osagaia, formalarekin aldentuz, nagusia dela ikusiko dugu, hau da, haurtzarora batez ere "giroa"ren bidez (informala) eta "eskolaz kanpoko"ren bidez (euskara klaseak, dantzak, txistua, euskal pelota...) sozializatuko da, dagokigun kasuan, eta era ezohizkoan euskal erbesteratzean, planteamendu formaletarantz jotzen du.

Ikastolaren itxierako barne osagaien artean matrikula beraren bilakaera, ikastolako haurrak aukeratutako ikastetxe pribatuetan bigarren hezkuntzan matrikulatu ezin izatearen gurasoen beldurra (toki eza izaten zen kezka nagusia, zeren, jakina, ikastetxe horietan lehenengo mailatik bertan dabiltzan ikasleek lehenetasuna baitzuten), eta gero eta ikastetxera joan ahal izateko gero eta zailtasun handiagoak (sasoi honetan ugariak dira Caracasen eman diren aldaketak eta euskal komunitatearen bizileku aldaketak eragina izango dute garraioan eta joan etorrietan galduko den denboran). Baina hala eta guztiz ere, ikastolaren kanpo aldaketak erabakigarriak izango dira: belaunaldi aldaketa, sendiak venezuelar testuinguruan murgilduz joatea eta Euskal Herrira itzultzeko itxaropena gero eta urrutiago ikustea. Hiru autu hauek laburbiltzen dute, gure iritziz eta frankismoaren amaieraren ostean bertan geratu zirenen testigantzen aburuz, ikastolaren desagerketa erreztu zituzten baldintzak.

Ikastolaren sorrerak Euskal Herrira nortasun ezaugarriak galdu barik itzultzearen irudikapenaren aurrean familia askok euren seme-alabak testuinguru euskaldunean hezitzeko itxaropena laburbiltzen bazuen, beronen desagerepenak beste kezka batzuei erantzuten die. Venezuelako 70.eko ekonomia oparotasunarekin aberastutako sendiak, lehenago egin ez bazuten, Francoren heriotzaren ostean badaude Euskal Herrira itzultzeko bidean. Venezuelan sustraituriko sendiek, belaunaldi berriek ulergarria zen mestizaiaren bidez beste harreman sare bat ezarriko dute, itzuli nahi ez dutelarik eta, beraz, ikastola ez da erreferentzia izango euren gurasoen tradizioari jarraipena emateko. Harreman multzo honetan esan genezake ikastolak lehenengo sasoiari funtsezko zeregina izan zuela, baina laurogeita hamar hamarkadatik aurrera Venezuelako jaiok edo bertan erabat murgilduak egon eta euskaldun sentituz jarraitzearen kontraesanean bizi ziren gurasoen haur belaunaldi berriaren beharizanak ez zituen betetzen:

... lehenengo etorri zirenek handik zekarten nik nekarren bezala. Baina hemen jaiotakoek ez zuten lehenengoek bezalako axolarik... euren artean asko txikitatik hona etorriak ziren, baina hemen ezkondu ziren, ia ez zuten Euzkadi ezagutzen eta dagoeneko ez zuten lehenengo etorri berrien axolarik, dena han utzi eta hura irrika handiz gogoratzen zutelarik, ez? Baina gerokoek hemen egon, bertan jaio eta hona etorri ziren, ardura hori ez zen horrenbeste ikusten³⁷.

BIBLIOGRAFIA

- ALVAREZ GILA, O. (1995). "Eliza, euskal abertzaletasuna eta Ameriketako erbesteratzea. Ikuspegi orokor bat (1898-1940)". *Uztaro*, 13, 69-86 orri.
- ARRIEN, G. (1984). *La generación del exilio. Génesis de las escuelas vascas y las colonias escolares 1932-1940*. Bilbao: Onura.
- BELTZA (1977). *El nacionalismo vasco en el exilio 1937-1960*. Donostia: Txertoa.
- DOUGLASS, W.A. & BILBAO J. (1986). *Amerikanuak. Euskaldunak mundu berrian*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua.

37. Karmen txu Gazteluri eginiako elkarrizketa, Euzkadi-Venezuela ikastolako andereñoa. Caracas, 1996ko apirila.

Fernández, I. [et al.]: Euskal erbesteratzea, generoa eta hezkuntza: Euzkadi-Venezuela ikastola

ELKARLANEAN (1962). *Los vascos en Venezuela. 20 Aniversario del Centro Vasco de Caracas 1942-1962*.

ELORZA, A. (1978). "La mujer en el nacionalismo vasco". *Tiempo de Historia* (38).

ESTORNÉS, I. (1983). *La sociedad de Estudios Vascos*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

FERNÁNDEZ, I. (1994). *Oroimenaren hitza. Ikastolen historia 1960-1975*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

FERNÁNDEZ, I. (1995). "La escuela vasca y la larga historia de la posguerra". In: DÁVILA, P. (arg), *Lengua, escuela y cultura. El proceso de alfabetización en Euskal Herria, siglo XIX y XX*. Argitarapen Zerbitzua. Euskal Herriko Unibertsitatea.

FERNÁNDEZ, Idoia (1997). "Erbestearen iluntasuna: euskal emakumeek zenbait argi izpi". In: *Emakumeak Euskal Herriko historian* IPES formazio koadernoak, 24. Zkia. 255-270. Orri.

GONZALO SALAS, S. (1938). *Inmigración vasca a Venezuela (Párrafos de un informe rendido el 14 de mayo del presente año)*. Caracas: Impresores unidos.

LARRAÑAGA, P. (1978). *Emakume Abertzale Batza. I*. Auñamendi Donostia.

SAN SEBASTIAN, K. eta AJURIA, P (1992). *El exilio vasco en Venezuela*. Vitoria-Gasteiz: Argitalpen Zerbitzu Zentrala. Eusko Jaurlaritzia.

SEBASTIÁN, L. (1989). "Las organizaciones y actividades de las mujeres nacionalistas vascas durante la guerra civil". In: *Las mujeres y la guerra civil española*, Madrid: Ministerio de Cultura. 80-87. orri.

UGALDE, M. (1993). *Mujeres y nacionalismo vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza 1906-1936*. Bilbo: EHUko Argitarapen Zerbitzua. Emakunde.

UGALDE, Martín (1957). "Quince años del centro vasco de Caracas". In: *XV Aniversario del centro vasco de Caracas*. Caracas.

URIBE-ETXEBERRIA, A. & FERNÁNDEZ, I. 1998. "El aprendizaje de la identidad desde la distancia: la ikastola (escuela vasca) de Caracas (1965-1986)". In: *Oral History: challenges for the 21st century*, ed. Xth International Oral History Conference. 1479-1488 or. Rio de Janeiro.